

ERIZAINZAKO GRADUA

GAITASUNEN ARABERAKO EBALUAZIORAKO GIDA

“PRACTICUM V” (KUDEAKETA)

4. MAILA

AURKIBIDEA

SARRERA	3
GAITASUNEN ARABERAKO EBALUAZIOA.....	4
1. GAITASUNA.....	4
2. GAITASUNA.....	5
3. GAITASUNA.....	6
4. GAITASUNA.....	7
EZINBESTEKO BETEBEHARRA.....	8
AZKEN EBALUAZIOA: KUDEAKETA.....	9
BIBLIOGRAFIA	11

SARRERA

Erizaintzako Graduko ikasketa plana² UPV/EHUko beste erizaintza eskola biek in batera egin zen, eta, bertan zehazten denez, Practicumeko kreditu guztiak aurrez aurre egin beharrekoak dira. Titulazioan prestakuntza praktikoa 92 ECTS dauzka esleituta, 1837/2008 Errege Dekretua³ betez, eta bertan zehazten denez, Erizaintzako Graduko ikasleek gutxienez 2.300 ordu egin behar dituzte osasun arretako praktiketan, *Gidaritzapeko Praktikak* izeneko moduluan. Kreditu hauek honela banatzen dira: 6 ECTS behaketa praktiketan lehen mailan, eta 86 ECTS, berriz, praktika aurreprofesionaletan, titulazioko azken hiru mailetan, Practicumeko bost irakasgaien artean banatuak.

Praktika aurreprofesional horiek osasun zentroetan, ospitaletan eta bestelakoetan egiten dira, eguneko txanda desberdinetan, eta praktiken amaieran gaitasunen arabera ebaluazioa egiten zaie ikasleei. Bertan lantzen dira balio profesionalak, arreta emateak eskatzen dituen komunikazio gaitasunak, arrazoitze klinikoa, kudeaketa klinikoa eta iritzi kritikoa, eta ikasleek aukera daukate Erizaintzan ikasitako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak praktikan jartzeko. Ezagutza, trebetasun eta jarrera horiek oinarritzen dira titularen helburu nagusietan eta gaitan deskribatutako gaitasunei dagozkien balio eta printzipioetan. Ikasleek frogatu behar dute erizainen ardurapean dauden gizakiek erabiltzeko sendagai eta osasun produktuak aholkatu, erabili eta baimentzeko gai direla, urriaren 23ko 954/2015 Errege Dekretuaren I. Eranskinean aurreikusten direnak⁴⁻⁷.

Hauek dira *Gidaritzapeko Praktiken* gaitasun zehatzak:

1. esku hartze planak diseinatzea, gauzatzea eta ebaluatzea, pertsonen, familien edo taldeen osasun premien arabera, eskuratutako gaitasunak erabiliz arreta oso, seguru eta kalitatekoa emateko, ebidentzia zientifikoetan eta legeko arau etikoetan oinarritua.
2. Lantalde batean lankidetzan jardutea komunikazio eraginkorra erabiliz, bakoitzaren rola identifikatuz eta lidergoa hartuz zainketa lanean, kudeaketarako tresnen bitartez, komunikazio ona izanez osasun arretaren maila guztien artean, eta baliabideak egoki erabiliz, hori guztia zainketa lana kalitate irizpideen arabera betetzeko.
3. Begirunez hartzea erabiltzaileak, haien familiak eta komunitatea, pertsona bakoitzaren egoeraren arabera, kode deontologikoaren balioak eta jarrera profesionalak txertatuz lanean, eta erabiltzaileen eskubideak sustatuz, hau da: parte hartzeko eskubidea, informaziorako eskubidea, autonomiarako eskubidea eta erabakiak hartzerakoan baimena jakinaren gainean emateko eskubidea, betiere kontuan hartuta osasun-gaixotasun prozesuaren testuingurua.
4. Gogoeta kritikoa egitea norberaren lanaz, kontuan hartuta pertsonaren, familiaren eta komunitatearen ezaugarriak eta testuinguru soziokulturala, etengabe ikasten jarraitzeko konpromisoa erakutsiz, eta arlo pertsonal eta profesionalean garatzen ahaleginduz, kalitateko zainketa integralak eskaintzeko begira.

Gidaritzapeko Praktiken moduluaren garapen kronologiko eta gradualak modua emango die ikasleei gaitasunok apurka-apurka eta arlo desberdinetan eskuratzeko, titulazioko lau mailetan zehar.

GAITASUNEN ARABERAKO EBALUAZIOA

1. GAITASUNA

Erizaintzako esku hartze planak diseinatzea, gauzatzea eta ebaluatzea, pertsonen, familien edo taldeen osasun premien arabera, eskuratutako gaitasunak erabiliz arreta oso, seguru eta kalitatekoa emateko, ebidentzia zientifikoetan eta arau etiko eta legeetan oinarrituta.

1.1 Erakundearen dauden baliabideak identifikatzea, honako hauei lotuta: informazio-sistemak, Historia Kliniko Elektronikoa (HKE), Osanaia eta erizaintzako erregistroak.

1.2 Osasun arretaren eta pazientearen segurtasunaren esparruaren antolaketan dauden estrategien inguruko ezagutzak erakustea.

IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK	GAITASUNAREN ESKURATZE MAILA										GUZTI RA
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
Erizaintza jardueran garrantzitsuak diren informazio sistemak identifikatzen ditu.	Ez ditu identifikatzen erizaintza jardueran garrantzitsuak diren informazio sistemak. Ez du adibide praktikorik ematen.				Modu egokian identifikatzen ditu erizaintza jardueran garrantzitsuak diren informazio sistemak. Eredu praktikoa jakin batzuk erabiltzen ditu azalpena indartzeko.				Bikain identifikatzen ditu erizaintza jardueran garrantzitsuak diren informazio sistemak eta eredu praktikoa ematen ditu.		
HKE eta zainketak kudeatzeko euskarri digitalak erabiltzeko gai da.	HKE eta zainketak kudeatzeko euskarri digitalak oinarrian erabiltzen ditu, edo ez ditu erabiltzen.				HKE eta zainketak kudeatzeko euskarri digitalak erabiltzeko gai da.				Modu aurreratuan HKE eta zainketak kudeatzeko euskarri digitalak erabiltzeko gai da.		
Erizaintzako erregistroak ebaluatzeko alderdi esanguratsuenak identifikatzen ditu.	Erizaintzako erregistroak ebaluatzeko esanguratsuenak ez diren alderdiak identifikatzen ditu eta/edo egiten duenean okerra da.				Erizaintzako erregistroak ebaluatzean alderdi esanguratsuenetako baten bat identifikatzen du.				Erizaintzako erregistroak ebaluatzeko alderdi esanguratsuenak nabarmen identifikatzen ditu.		
Erakundeko kalitate eredu desberdinak identifikatzen ditu.	Ez du identifikatzen erakundeko kalitate ereduak baten bat ere, eta/edo egiten duenean okerra da.				Erakundeko kalitate ereduak baten bat identifikatzen du.				Erakundeko kalitate eredu gehienak identifikatzen ditu.		
Arrazoitzen du osasun arretaren printzipioek nola eragiten duten segurtasun klinikoan eta hobekuntza etengabea.	Ez da arrazoitzeko gai eta/edo segurtasun klinikoan eta hobekuntza etengabea eragiten duten printzipioak oker arrazoitzen ditu.				Segurtasun klinikoan eta hobekuntza etengabea eragiten duten printzipioak funtsik gabe arrazoitzen ditu.				Segurtasun klinikoan eta hobekuntza etengabea eragiten duten printzipioak bikain gabe arrazoitzen ditu.		
Kalkulua: irakaskuntza emaitza bakoitzaren kalifikazioaren batura/5											
Oharrak:											

2. GAITASUNA

Lan talde batean lankidetzan jardutea komunikazio eraginkorra erabiliz, bakoitzaren rola identifikatuz eta lidergoa hartuz zainketa lanean, kudeaketarako tresnen bitartez, komunikazio ona izanez osasun arretaren maila guztien artean, eta baliabideak egoki erabiliz, hori guztia zainketa lana kalitate irizpideen arabera betetzeko.

2.1 Erakundearen barruko koordinazio elementuak identifikatzea, baliabide materialen eta pertsonen kudeaketari dagokionez.

ESlaren osasun arretako maila desberdinen arteko koordinazioa eta eremu soziosanitarioko koordinazioa identifikatzea.

IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK	GAITASUNAREN ESKURATZE MAILA										GUZTI RA
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
Erakundearen zuzendaritzaren esparruan, profesional desberdinen rola eta erantzukizunak identifikatzen ditu.	Ez da gai erakundearen zuzendaritzaren esparruan profesional desberdinen rola eta erantzukizunak identifikatzeko eta/edo egiten duenean okerra da.				Erakundearen zuzendaritzaren esparruan, profesional desberdinen rol eta erantzukizun batzuk identifikatzen ditu.				Erakundearen zuzendaritzaren esparruan, ondo identifikatzen du profesional desberdinen rola eta erantzukizunak.		
Erakunde barruko osasun arretako maila desberdinen arteko koordinazio mekanismoak identifikatzen ditu.	Ez da gai erakundearen zuzendaritzaren esparruan, profesional desberdinen rola eta erantzukizunak identifikatzeko, eta/edo egiten duenean okerra da.				Gai da erakunde barruko osasun arretako maila desberdinen arteko koordinazio mekanismo batzuk identifikatzeko.				Gai da erakunde barruko osasun arretako maila desberdinen arteko koordinazio mekanismoak identifikatzeko.		
Zuzen arrazoitzen du erakunde nola kudeatzen diren materialak erakunde publiko baten baitan.	Ez du arrazoitzen nola kudeatzen diren materialak erakunde publiko baten baitan eta/edo argudioak ez dira zuzenak.				Funtsik gabe arrazoitzen du nola kudeatzen diren materialak erakunde publiko baten baitan.				Zehatz mehatz arrazoitzen du nola kudeatzen diren materialak erakunde publiko baten baitan.		
Identifikatu egiten ditu eremu sanitario eta soziosanitarioko koordinazioaren alderdi esanguratsuenak.	Ez ditu identifikatzen eremu sanitario eta soziosanitarioko koordinazioaren alderdi esanguratsuenak, eta/edo egiten duenean oker egiten du.				Identifikatu egiten ditu eremu sanitario eta soziosanitarioko koordinazioaren alderdi esanguratsuenetako batzuk.				Bikain identifikatu egiten ditu eremu sanitario eta soziosanitarioko koordinazioaren alderdi esanguratsuenak.		
KALIFIKAZIOA, GUZTIRA Kalkulua: irakaskuntza emaitza bakoitzaren kalifikazioaren batura/4											
Oharrak:											

3. GAITASUNA

Beharrez hartzea pertsonak eta komunitatea, pertsona bakoitzaren egoeraren arabera, kode deontologikoaren balioak eta jarraera profesionalak txertatuz lanean, eta erabiltzaileen eskubideak sustatuz, hau da: parte hartzeko eskubidea, informazioarako eskubidea, autonomiarako eskubidea eta erabakiak hartzerakoan baimena jakinaren gainean emateko eskubidea, betiere kontuan hartuta osasun-gaixotasun prozesuaren testuingurua.

3.1 Lidergo gaitasunak erakustea ebidentzian oinarritutako zainketetan, erakundeetan dauden Jardunbide Kliniko Egokiaren Gidak aplikatuz, jarraipena eginez eta ebaluatuz (CCEC/BPSO).

IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK	GAITASUNAREN ESKURATZE MAILA										
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	GUZTI RA
Ikasleei eta/edo profesionalen zuzendutako prestakuntza saio bat planifikatzeko eta egiteko gaitasuna erakusten du.	Ez du inolako prestakuntza jarduerarik egiten parte hartzen.				Gutxienez prestakuntza jarduera bat egiten parte hartu du, eta rola pasiboa izan da. Ez du ideiarik eman.				Parte hartu du prestakuntza jarduerak prestatzen, eta bere rola aktiboa izan da, ideiak eman dituelako.		
Talde sustatzaileak sortzeko eta mantentzeko estrategiak identifikatzeko.	Ez da gai talde sustatzaileak sortzeko eta mantentzeko estrategiak identifikatzeko.				Talde sustatzaileak sortzeko eta mantentzeko strategiaren bat identifikatzeko gai da. Identifikatzean akatsak daude.				Talde sustatzaileak sortzeko eta mantentzeko estrategiak zuzen identifikatzeko gai da.		
Erizaintzako profesionalen etengabeko prestakuntzaren beharra arrazoitzen du, prestakuntza korporatiboa eta erakundearen irakaskuntza unitatearen estrategiak oinarri hartuta.	Ez du arrazoitzen erizaintzako profesionalen etengabeko prestakuntzaren beharra. Bere argumentuek ez dute oinarri teorikorik.				Zuzen arrazoitzen ditu erizaintzako profesionalen etengabeko prestakuntzaren behar batzuk. Bere argumentuak zati batean estrategia korporatiboetan eta erakundearen estrategietan oinarrituta daude.				Bikain arrazoitzen du erizaintzako profesionalen etengabeko prestakuntzaren beharra. Bere argumentuak oinarrituta daude estrategia korporatiboetan eta erakundearen estrategietan.		
KALIFIKAZIOA, GUZTIRA											
Kalkulua: irakaskuntza emaitza bakoitzaren kalifikazioaren batura/3											
Oharrak:											

4. GAITASUNA

Gogoeta kritikoa egitea norberaren lanaz, kontuan hartuta pertsonaren, familiaren eta komunitatearen ezaugarriak eta testuinguru soziokulturala, etengabe ikasten jarraitzeko konpromisoa erakutsiz, eta arlo pertsonal eta profesionalean garatzen ahaleginduz, kalitateko osasun zainketa okupazional integralak eskaintzeari begira.

4.1 Erakundearen barruko koordinazio elementuak identifikatzea, baliabide materialen eta pertsonen kudeaketari dagokionez.

ESlaren osasun arretako maila desberdinen arteko koordinazioa eta eremu soziosanitarioko koordinazioa identifikatzea.

IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK	GAITASUNAREN ESKURATZE MAILA										
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	GUZTI RA
Interesa eta inizatiba erakusten ditu ikaste prozesuan.	Ez ditu entrega epeak betetzen. Ikaste prozesuan interes gutxi erakusten du eta ez du inizatiba handirik unitatearen jardueretan parte hartzeko.				Ikaste prozesuan interesa, ardura eta inizatiba erakusten ditu. Unitatearen prestakuntza jardueretara bertaratzen da.				Interesa, ardura eta inizatiba erakusten ditu. Unitatearen arauetara eta jardueretara egokitzen da. Prestakuntza saio batean parte hartu eta kolaboratzen du.		
Erantzukizuna bere gain hartzen du.	Ez du ikaste prozesuaren ardura bere gain hartzen.				Ikaste prozesua bere tutoreen laguntzaz planifikatzen du. Hobetzeko iradokizunak aplikatzen ditu, baina martxan jartzeko laguntza eta norbaiten gidaritzapean egon behar du.				Ikaste prozesua gidatzeko autonomia erakusten du. Hartutako erabakiez eta martxan jarritako jarduketan ardura bere gain hartzen du.		
Bere ikaste prozesuarekin lotutako esku hartzeak eta jarrera aztertzen ditu.	Besteen laguntza behar du ikaste prozesuarekin lotutako esku hartzeak eta jarrera aztertzeko.				Esku hartzeak eta jarrera aztertzeko gai da tutore-irakaslearen laguntzaz. Lagunduta identifikatzen ditu eta hobetzeko zereginak martxan jartzen ditu.				Gai da esku hartzeak eta jarrera kritikoki aztertzeko. Autonomiaz identifikatzen ditu hobetu beharreko alderdiak eta horiek hobetzeko zereginak martxan jartzen ditu.		
Bere esku hartzeak arrazoitzen ditu.	Kontsultatzen dituen informazio iturriak esanguratsuak dira. Arazoak ditu bere diskurtsoa modu antolatuan emateko. Bere esku hartzeak ez ditu oso sakon azaltzen eta arrazoitzen. Ez du kontsultatutako bibliografia jasotzen.				Praktika klinikoko alderdiren bat zalantzan jartzen du eta erantzuna bilatzeko informazio iturri desberdinak kontsultatu eta irakurketa kritikoa egiten du. Argudioak modu egituratuan ematen ditu. Vancouver formatuan jartzen ditu erreferentziak, akatsen bat badago ere.				Praktika klinikoko alderdiren bat zalantzan jartzen du, ebidentzian oinarritutako erantzunak ematen ditu eta horiek ezartzea proposatzen du. Argudioak modu egituratuan ematen ditu. Erreferentziak testuan integratzen ditu. Vancouver ondo erabilia jartzen ditu erreferentziak.		
Kalkulua: irakaskuntza emaitza bakoitzaren kalifikazioaren batura/4											
Oharrak:											

EZINBESTEKO BETEBEHARRA

Ezinbesteko betebeharra		
Betebeharra	Ez du betetzen	Betetzen du
Praktika egiten du zainketarekin lotutako segurtasun klinikoko printzipioak integratuz.	Ez du prebentzio neurririk hartzen botikak eman aurretik. Ez ditu gorputz mekanikaren printzipioak aplikatzen. Ez du prebentzio neurri egokirik hartzen istripu biologikoak eragozteko, eta ez du horretarako protokoloa betetzen.	Segurtasun klinikoaren eta gorputz mekanikaren printzipioak aplikatzen ditu, eta istripu biologikoak eragozteko prebentzio neurriak hartzen ditu. Ekimenaren eta zuhurtziaren arteko oreka
Betebehar formalak betetzea: ordua, txanda aldaketak, itxura eta uniformea zaintzea; abisua ematea ezustekoak gertatzen direnean (atzerapenak, gaixotasunak, baimenak eta abar).	Ez ditu betebehar formalak ondo betetzen. Berandu heldu ohi da eta huts egiten du praktikara justifikaziorik gabe. Ez da txanda aldaketetara joaten. Ez du itxura behar bezala zaintzen (ez du ilea jasotzen, ez ditu eskuak edo azazkalak garbi izaten, joiak eramaten ditu eskuetan...).	Betebehar formalak betetzen ditu, ordua zaintzen du eta ezustekoak daudenean abisua ematen du. Beti joaten da txanda aldaketetara. Txukun eta garbi agertzen da (uniformea, eskuak eta azazkalak garbi, joiarik ez, ilea jasota...).
Pertsonen eskubideak ezagutu eta errespetatzea, eta uneoro konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala bermatzea.	Ez ditu ezagutzen erabiltzaileen eskubideak. Begirune falta erakusten du eta ez du pertsonen intimitatea errespetatzen. Ez du ardura handirik erakusten pertsonen osasunari buruzko konfidentzialtasuna zaintzeko.	Ezagutzen eta betetzen ditu erabiltzaileen eskubideak. Bere jardunean intimitatea zaintzen du uneoro, eta pertsonen duintasuna, balioak eta sinesteak errespetatzen ditu. Konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala bermatzen ditu uneoro.
Komunikazio trebetasunak erakustea.	Ez du gizabiderik erakusten (keinu desegokiak egiten ditu, ez du agurtzen, ez du atean jotzen geletan sartu aurretik, ez du aurpegira begiratzen berba egitean eta abar). Hitzeko eta hitzez bestelako komunikazio desegokia (uzkurra da, agintzailea, lotsagabea, oldartsua). Pertsonak infantilizatzen ditu. Ironia darabil harremanetan.	Hitzeko eta hitzez bestelako komunikazio egokia darabil. Entzuteko eta elkarriketarako gaitasuna dauka. Modu errazean azaltzen ditu bere ideiak.
Esku hartu aurretik ziurtatzea behar dituen ezagutzak eta informazioa eskuratu dituela. Esku hartu aurretik baimena eskatzea, eta egiten duenaren berri ematea bai lan taldeari eta bai erabiltzaileari.	Ez da jabetzen esku hartu aurretik beharrezkoa dela behar diren ezagutzak eta trebetasunak izatea. Ez du galdetzen eta ez du egiten duenaren berri ematen. Esku hartu aurretik ez dio baimenik eskatzen erabiltzaileari.	Esku hartu aurretik ziurtatzen du badituela behar diren ezagutza eta trebetasunak. Segurtasuna transmititzen du, eta, esku hartu aurretik, egingo duenaren berri ematen du eta baimena eskatzen dio erabiltzaileari.
Bere ikaste prozesuan interesa, ardura eta ekimena erakustea, eta prest agertzea bere ikaskuntzarekin zerikusia daukaten jarduera guztietan parte hartzeko.	Ez du interesik erakusten bere ikaste prozesuan eta ez dauka ekimenik unitatearen jardunetan parte hartzeko.	Interesa, ardura eta inizatiba erakusten ditu. Erakutsi du ezagutzak eskuratu dituela, zentroko profesionalen gidaritzapean.

AZKEN EBALUAZIOA: KUDEAKETA

20____/20____ IKASTURTEA. ERIZAINZAKO GRADUA, 4. MAILA

IKASLEA	
PRAKTIKA GUNEA	
ZERBITZUA	
PRAKTIKALDIA	

Praktikaldiaren amaieran ikasleei nota jakinaraziko zaie. Azken kalifikazioa orri honetan bertan jarri behar da, eta gero praktika guneko irakaskuntzaren arduradunari bidali behar zaio. Hark eskaneatu eta unibertsitatera bidali behar du. Komeniko litzateke praktikaldiaren erdialdera ebaluazio gida hau errebasatzea ikaslearekin batera, eta ikusten joatea zertan hobetu dezakeen. Gaitasunak ebaluatzeke nahitaezkoa da **EZINBESTEKO BALDINTZA** guztiak **BETETZEA**. Era berean, Practicum irakasgaia gainditzeko nahitaezkoa da **GAITASUN GUZTIAK** gaindituta izatea.

GAITASUNAK:	PUNTUAK
Erizaintzako esku hartze planak diseinatzea, gauzatzea eta ebaluatzea, pertsonen, familien edo taldeen osasun premien arabera, eskuratutako gaitasunak erabiliz arreta oso, seguru eta kalitatekoa emateko, ebidentzia zientifikoetan eta arau etiko eta legeetan oinarritua. 1.1. Erakundean dauden baliabideak identifikatzea, honako hauei lotuta: informazio-sistemak, Historia Kliniko Elektronikoa (HKE), Osanaia eta erizaintzako erregistroak. 1.2. Osasun arretaren eta pazientearen segurtasunaren esparruaren antolaketan dauden estrategien inguruko ezagutzak erakustea.	
Lantalde batean lankidetzan jardutea komunikazio eraginkorra erabiliz, bakoitzaren rola identifikatuz eta lidergoa hartuz zainketa lanean, kudeaketarako tresnen bitartez, komunikazio ona izanez osasun arretaren maila guztien artean, eta baliabideak egoki erabiliz, hori guztia zainketa lana kalitate irizpideen arabera betetzeko. 2.1. Erakundearen barruko koordinazio elementuak identifikatzea, baliabide materialen eta pertsonen kudeaketari dagokionez. ESlaren osasun arretako maila desberdinen arteko koordinazioa eta eremu soziosanitarioko koordinazioa identifikatzea.	
Begirunez hartzea erabiltzaileak, haien familiak eta komunitatea, pertsona bakoitzaren egoeraren arabera, kode deontologikoaren balioak eta jarrera profesionalak txertatuz lanean, eta erabiltzaileen eskubideak sustatuz, hau da: parte hartzeko eskubidea, informaziorako eskubidea, autonomiarako eskubidea eta erabakiak hartzerakoan baimena jakinaren gainean emateko eskubidea, betiere kontuan hartuta osasun-gaixotasun prozesuaren testuingurua. 3.1. Lidergo gaitasunak erakustea ebidentzian oinarritutako zainketetan, erakundean dauden Jardunbide Kliniko Egokien Gidak aplikatuz, jarraipena eginez eta ebaluatuz (CCEC/BPSO).	
Gogoeta kritikoa egitea norberaren lanaz, kontuan hartuta pertsonaren, familiaren eta komunitatearen ezaugarriak eta testuinguru soziokulturala, etengabe ikasten jarraitzeko konpromisoa erakutsiz, eta arlo pertsonal eta profesionalean garatzen ahaleginduz, kalitateko zainketa integralak eskaintzeari begira. 4.1. Erakundearen barruko koordinazio elementuak identifikatzea, baliabide materialen eta pertsonen kudeaketari dagokionez. ESlaren osasun arretako maila desberdinen arteko koordinazioa eta eremu soziosanitarioko koordinazioa identifikatzea.	

GUZTIRA	
Kalkulua: gaitasun bakoitzaren kalifikazioaren batura/4	

AZKEN NOTA: PUNTUAK, GUZTIRA		
Begiralearen izen-deiturak:	Begiralearen sinadura:	
NAN zenbakia:		
Ikaslearen izen-deiturak:	Ikaslearen sinadura:	

BIBLIOGRAFIA

1. Erizaintza graduako gaitasunak. Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako irakasle taldea. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Osakidetza. Vitoria-Gasteiz, 2015.
2. Ebazpena, 2012ko urtarrilaren 10ekoa, Euskal Herriko Unibertsitatearena, Erizaintzako Graduatuaren ikasketa plana argitaratzen duena (BOE, 33. zk., 2012ko otsailaren 8koa).
3. 1837/2008 ERREGE DEKRETUA, azaroaren 8koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005eko irailaren 7ko 2005/36/EE Zuzentaraua eta Kontseiluaren 2006ko azaroaren 20ko 2006/100/EE Zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen dituen, lanbide-kualifikazioak aitortzeari eta abokatu-lanbidearen zenbait alderdiri buruzkoak.
4. 1/2015 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 24koa, Sendagaien eta osasun produktuen bermeei eta erabilera arrazionalari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. BOE, 177. zk.; 2015/07/25 [Sarbidetza data: 10/02/2018]: 62935 – 63030. Eskuragarri hemen: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-8343
5. 1718/2010 Errege Dekretua, abenduaren 17koa, Errezeta medikoei eta banaketa-aginduei buruzkoa. BOE, 17. zk; 2011/01/20 [Sarbidetza data: 10/02/2018]: 6306 – 6329. Eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2011-1013>
6. 954/2015 Errege Dekretua, urriaren 23koa, Erizainek gizakientzako sendagaiak eta osasun-produktuak gomendatzea, erabiltzea eta emateko baimena ematea arautzen duena. BOE, 306. zk; 2015/12/23 [Sarbidetza data: 10/02/2018]: 121483 –121498 . Eskuragarri hemen: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-14028
7. 1302/2018 Errege Dekretua, urriaren 22koa, urriaren 23ko 954/2015 Errege Dekretua aldatu eta erizainek gizakientzako sendagaiak eta produktu sanitarioak aholkatzeko, erabiltzeko eta banatzea baimentzeko prozedura arautzekoa. BOE, 256. zk; 2018/01/23 [Sarbidetza data: 10/02/2018]: 102636 - 102643. Eskuragarri hemen: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2018-14474